

## BESTELAKO XEDAPENAK

### EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

## 4021

*AGINDUA, 2016ko irailaren 14koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita nekazaritza, arrantza eta elikadurako sektorearen arlo zientifiko, teknologiko eta enpresarialetako ikertzaile eta teknologo gazteen prestakuntzarako laguntzetarako, 2017rako.*

2007ko azaroaren 13an, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikadura-ren sektoreko arlo zientifiko-teknologikoan eta enpresa-arloan, ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzei buruzko urriaren 23ko 185/2007 Dekretua argitaratu zen Euskal Herriko Agin-taritzaren Aldizkariaren 218. zenbakian. Azaroaren 24ko 608/2009 Dekretuak aldatu zuen dekretu hori, eta haren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko arlo zientifiko-teknologikoan, merkatuetan, marketinean eta enpresa-arloan ikertzaile eta teknologo gazteen prestakuntza sustatzeko laguntzen esparrua ezartzea eta arautzea.

Dekretu horretako 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, urtero, sailburuak hala aginduta, laguntza-eskabideak aurkezteko epea zabalduko da. Bestalde, deialdiko aginduan honako hauek adierazi behar dira: aurrekontu-kreditu erabilgarria; deialdiko beka-kopurua eta bakoitzaren zen-batekoa; ikertzaileak eta teknologoak prestatzeko, estrategikotzat eta lehentasunezkoztat jotzen diren I+G+Bko proiektuen zerrenda jasotzen duen eranskina; eta, deialdi horretarako normaliza-tutako eskabide-eredua jasotzen duen eranskina. Deialdi honetarako, gastu-espeditentea aurrez izapidetzea erabaki da; hala ere, horren ondorioz, deialdiko laguntzak gauzatuko dira baldin eta kreditu egokia eta nahikoa badago Euskal Autonomia Erkidegoko 2017ko aurrekontu orokorretan.

Horiek guztiak horrela eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua-rekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren laguntza eta diru-laguntzei aplika dakizkiekeen gainerako xedapenekin bat,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Deialdia.

1.– 2017ko ekitaldirako hamaika beka deitu dira prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako pro-gramaren barruan (doktoratu aurrekoak), eta hamar beka, berriz, teknologo gazteak prestatzeko programaren barruan.

2.– Agindu honetako I. eranskinean dago jasota Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sai-laren iritziz 2017ko ekitaldiko deialdian bi programetarako estrategikoak eta lehentasunezkoak diren I+G+Bko proiektuen zerrenda.

Bigarrena.– Iraupena.

Prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako laguntzak badira, kontratuak urtebete iraungo du, eta urteko luzapenak egin daitezke. Ezein kasutan, hasierako kontratuan metatutako iraupena eta luzapenen iraupena ezingo da lau urte baino luzeagoa izan.

Teknologo gazteak prestatzeko laguntzei dagokienez, nahiz eta dekretuan xedatzen den laguntzek ondoz ondoko bi urteko iraupena edo urtebetekoa izan dezaketela, kasu honetan, emango diren laguntza guztiek bi urteko iraupena izango dute.

Hirugarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

2017ko ekitaldian, urriaren 23ko azaroaren 185/2007 Dekretuak araututako laguntzen eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.– Aurkeztu beharreko eskabideak eta agiriak.

1.– 2017ko ekitaldiko laguntza-eskaerak agindu honen II. eranskinean dagoen eredu normalizatuan aurkeztu behar dira Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari zuzenduta (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

2.– Eskabideak helbide horretan bertan aurkez daitezke, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (azaroaren 26ko 30/1992) 38.4. artikuluan aurreikusitako edozein bide erabili ahalko da. Eskatzaileak postetxe batean aurkezten badu eskabidea, gutun-azal irekian egin beharko du, posta-funtzionarioak zigila dezan eta data ezar diezaion.

3.– Eskabidearekin batera eskabide-ereduan zehaztutako agiriak aurkeztu beharko dituzte (II. eranskina).

4.– Interesdunek laguntza eskatu ahal izango dute edozein programatan, eta I. eranskinean jasotako guztien artean 3na proiektu aukeratu ditzakete gehienez.

Bosgarrena.– Diru-zuzkidura.

1.– Laguntza horiek ordaintzeko aurrekontua, gehienez ere, 1.066.520 eurokoa izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren pentzutan. Zenbateko horretatik 331.630 euro 2017rako ordainketa-kredituei dagozkie, eta gainerako 734.890 euroak, 2018-2020 ekitaldietarako konpromiso-kredituei.

2.– Gizarte Segurtasunari atxikitzearen ondoriozko gastua (urriaren 24ko 1493/2011 Errege Dekretuan xedatuta) 242.285,88 eurokoa; horietatik 63.571,47 euro 2017rako ordainketa-kredituari dagozkio, eta 178.714,41 euro konpromiso-kredituari.

Seigarrena.– Eskatzaileek bete beharreko eskakizunak.

2017ko deialdian, laguntza-eskatzaileek egiaztatuta izan behar dituzte betekizun hauek, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako:

a) Europar Batasuneko herritarra izatea, edo Euskal Autonomia Erkidegoan bizilekua duen atzerritarra.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea. Ondorio horietarako, eskatu egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta egotea, 2016 urteko urtarrilaren 1etik aurrera gutxienez. Dena dela, onartu egingo dira, eskakizun hori bete ez arren, inoiz EAEn erroldaturik egon baina ikasketak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egin dituzten eskatzaileak.

c) Ikertzaileen prestakuntzarako laguntzen programan (doktoratu aurreko bekak), I. eranskinean proiektu bakoitzerako zehaztutako tituluetakoren bat edukitzea eta doktoregoan onartzea eska-

tzeko eskakizunak betetzea (Doktoretza-ikasketa ofizialak arautzen dituen urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretuaren 6. artikulua arabera).

d) Teknologoen prestakuntzarako beka-programan, I. eranskinean proiektu bakoitzerako zehaztutako titulazio hauetakoren bat edukitzea, urriaren 23ko 185/2007 Dekretuaren 5.1.c) artikulua ezartzen duen titulazio-eskakizunen esparru orokorraren barruan: goi-edo erdi-mailako unibertsitate-titulua, goi-mailako heziketa-zikloa edota bigarren zikloko lanbide-heziketa (II. LH).

e) Titulu hori lortzeko ikasketak amaitu behar izan dituzte 2012ko ekainean edo geroago.

f) Teknologo gazteak prestatzeko laguntzetarako, ezin izan dute beste antzekorik izan, hau da, nekazaritzako, arrantzako eta elikaduraren arloko eskumena duen sailak emandako antzekorik.

g) Ez dute izan behar diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barnean izanik, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako Legearen (otsailaren 18ko 4/2005) azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoarekin bat.

Zazpigarrena.– Laguntzen zenbatekoa.

1.– Prestatzen ari diren ikertzaileak (doktorego aurreko bekak):

a) Prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako laguntzek 16.330 euroko dotazio ekonomikoa izango dute urteko, gehi Gizarte Segurantzako urteko kuota.

b) Ikertzailea atxikita dagoen organismo, zentro edo erakundeak 21.563,77 euro eskuratuko ditu alde aurretik, eta ikertzaileek 16.330 euroko ordainsari gordina jaso beharko dute, Gizarte Segurantzako kuotak urte bakoitzean dagozkion kotizazio- eta hobari-tasen ondorioz egoki direnak izatea alde batera utzi gabe.

c) Orobat, onuradunek laguntza osagarri bat izango dute; izan ere, laguntza bakoitzeko, gehienez 2.000 euro gehiago eskura dezakete urteko, gastuak ordaintzeko. Aldez aurretik justifikatuta, doktorego-ikastaroetan matrikulatzeko, zientzia-kongresuetan edo lan-saioetan parte hartzeko, beste ikerketa-zentro batzuetan egonaldi laburrak egiteko, beste ikastaro batzuk egiteko, eta abarretarako erabiliko dute diru kopuru hori.

2.– Teknologoak.

Teknologoak prestatzeko laguntzek 12.000 euroko dotazio ekonomikoa izango dute urteko, gehi Gizarte Segurantzako urteko kuota. Orobat, onuradunek laguntza osagarri bat jaso ahalko dute (laguntza bakoitzeko, gehienez, 1.000 euro gehiago eskuratu ahalko dituzte urtean). Aldez aurretik justifikatuta, kongresu zientifikoetan edo lansaioetan parte hartzeko, beste ikerketa-zentro batzuetan egonaldi laburrak egiteko, beste ikastaro batzuk egiteko eta abarrerako erabiliko dute diru kopuru hori.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren bidez ordainduko diren gastu-espedituentzako aurrez izapidetzeari buruzko Ogasun eta Herri Administrazioako sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan jasotzen dena betetzearren, deialdi honetako laguntzak ebazteko baldintza izango da Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan kreditu egokia eta nahikoa gotea 2017. urterako.

#### AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa ezar dakioke Ingurumen, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

#### AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 14a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

2016ko irailaren 21a, asteazkena

## I. ERANSKINA

## EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILAK ESTRATEGIKOTZAT ETA LEHENTASUNEZKOTZAT HARTUTAKO PROIEKTUEN ZERRENDA 2017KO EKITALDIRAKO

1.– Prestakuntza jasotzen ari diren ikertzaileentzako laguntzak.

Iraupena: 4 urte

Zk.	Proiektuaren izena	Eskatzen diren tituluak
1	Nutrizio pertsonalizaturako elikagai funtzional berrien formulazioa	Giza Nutrizioko eta Dietetikako Gradua Elikagaien Zientzia eta Teknologia Gradua Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua Farmaziako Gradua Kimikako Gradua
2	Histaminarik gabeko ardoa	Biologiako Gradua Bioteknologiako Gradua Agronomia Ingeniaritza eta Zientziako Gradua Farmaziako Gradua
3	Indiako ozeanoko tunido tropikalen konektibitatearen eta populazio-egituraren azterketa otolitoen analisi mikrokimikoen eta analisi genetikoen bitartez	Biologiako Gradua Biologia molekularreko Gradua Itsas Zientzietako Gradua Genetikako Gradua Itsas Biologiako Gradua
4	(Azpi) mesoeskalaren aldakortasun ozeanikoaren eginkizuna Bizkaiko Golkoko itsas fisikaren eta biologiaren arteko interakzioan	Biologiako Gradua Itsas Zientzietako Gradua Fisikako Gradua
5	Hainbat gizentze-espezieren haragiaren trazabilitatea, egiazkotasuna eta kalitatea proteomika eta lipidomikako tekniken bidez	Elikagaien Zientzia eta Teknologia Gradua Biologiako Gradua Kimikako Gradua Biokimikako Gradua Farmaziako Gradua Bioteknologiako Gradua
6	Arabako zerealak ongarrizeko abere-jatorriko azpiproduktu organikoak erabiltzea	Biologiako Gradua Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua Bioteknologiako Gradua Ingurumen Zientzietako Gradua Agronomia Ingeniaritza eta Zientziako Gradua Nekazaritzako Ingeniaritzako Gradua Elikagaien Ingeniaritzako Gradua Nekazaritza eta Ingurumeneko Ingeniaritzako Gradua Nekazaritzako Ingeniaritzako Gradua Nekazaritzako Elikagaien Ingeniaritzako Gradua Nekazaritzako Elikagaien eta Landa Ingurunearen Ingeniaritzako Gradua Basogintzako Ingeniaritzako Gradua Basogintza eta Natur Inguruneeko Ingeniaritzako Gradua

2016ko irailaren 21a, asteazkena

Zk.	Proiektuaren izena	Eskatzen diren tituluak
7	Teknika molekularrak erabiltzea nekazaritzako lurzoruen funtzionamendua eta biodibertsitatea ebaluatzeko	<p>Biologiako Gradua            Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua            Bioteknologiako Gradua            Ingurumen Zientzietako Gradua            Agronomia Ingeniaritza eta Zientziako Gradua            Nekazaritzako Ingeniaritzako Gradua            Elikagaien Ingeniaritzako Gradua            Nekazaritza eta Ingurumeneko Ingeniaritzako Gradua            Nekazaritzako Ingeniaritzako Gradua            Nekazaritzako Elikagaien Ingeniaritzako Gradua            Nekazaritzako Elikagaien eta Landa Ingurunearen Ingeniaritzako Gradua            Basogintzako Ingeniaritzako Gradua            Basogintza eta Natur Inguruneako Ingeniaritzako Gradua</p>
8	Klima-aldaketaren hur-hurreko egoerarako «elite»ko baso-landarearen ekoizpena	<p>Biologiako Gradua            Bioteknologiako Gradua            Ingurumen Zientzietako Gradua            Agronomia Ingeniaritza eta Zientziako Gradua            Nekazaritzako Ingeniaritzako Gradua            Elikagaien Ingeniaritzako Gradua            Nekazaritza eta Ingurumeneko Ingeniaritzako Gradua            Nekazaritzako Ingeniaritzako Gradua            Nekazaritzako Elikagaien Ingeniaritzako Gradua            Basogintzako Ingeniaritzako Gradua            Basogintza eta Natur Inguruneako Ingeniaritzako Gradua</p>
9	Erantzun immunearen azterketa eta babes-markatzaileen identifikazioa paratuberkulosiaren txertaketari lotuta	<p>Biologiako Gradua            Zientzia Esperimentaletako Gradua            Zientzia Biomedikoetako Gradua            Albaitaritzako Gradua            Medikuntzako Gradua            Farmaziako Gradua            Biokimikako Gradua            Bioteknologiako Gradua            Genetikako Gradua            Mikrobiologiako Gradua            Agronomia Ingeniaritza eta Zientziako Gradua            Nekazaritzako Ingeniaritzako Gradua            Elikagaien Ingeniaritzako Gradua            Nekazaritza eta Ingurumeneko Ingeniaritzako Gradua            Nekazaritzako Ingeniaritzako Gradua            Nekazaritzako Elikagaien Ingeniaritzako Gradua</p>
10	Kitina eta funtsezko olioak oinarri dituzten produktu berriak garatzea	<p>Kimikako Gradua            Industriako Ingeniaritza Kimikoko Gradua            Ingeniaritza Kimikoko Gradua            Ingurumen Ingeniaritzako Gradua</p>
11	Baso-hondakinetatik biomolekulak lortzea	<p>Kimikako Gradua            Industriako Ingeniaritza Kimikoko Gradua            Ingeniaritza Kimikoko Gradua            Bioteknologiako Gradua            Ingurumen Ingeniaritzako Gradua</p>

2016ko irailaren 21a, asteazkena

## 2.– Teknologoentzako prestakuntza-laguntzak.

Iraupena: 2 urte

Zk.	Proiektuaren izena	Eskatzen diren tituluak
1	Benetakotzat egiaztatzeko metodologia berriak garatzea elikagaien iruzurrak kontrolatzeko	Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua Bioteknologiako Gradua Biologiako Gradua Farmaziako Gradua
2	Elikagaien ezaugarri sentzorien eragina kontsumitzailearen pertzepzio eta erantzun emozionalean	Elikagaien Zientzia eta Teknologiko Gradua Soziologiako Gradua Matematikako Gradua Agronomia Ingeniaritza eta Zientziako Gradua
3	Kostaldekoko modelaketa hidrodinamikoan algoritmo berritzaileak garatu eta aplikatzea (Copernicus downstream services)	Fisikako Gradua Itsas Zientzietako Gradua Matematikako Gradua Industria Ingeniaritzako Gradua Telekomunikazioaren Teknologia Ingeniaritzako Gradua Ingeniaritza Zibileko Gradua
4	Bizkaiko golkoan pelagiko txikien errekrutamendua arautzen duten prozesuak aztertzea	Biologiako Gradua Itsas Zientzietako Gradua Itsas Biologiako Gradua
5	Elikagai berriak diseinatu eta garatzea	Elikagaien Zientzia eta Teknologiko Gradua Nekazaritzaren Ingeniaritzako Gradua Gastronomia eta Sukaldekoko Arteetako Gradua
6	Osasun publikoko eta animalien osasuneko eragile patogeno garrantzizkoen bektoreak	Biologiako Gradua Zientzia Esperimentaletako Gradua Zientzia Biomedikoetako Gradua Albaitaritzako Gradua Medikuntzako Gradua Farmaziako Gradua Biokimikako Gradua Bioteknologiako Gradua Genetikako Gradua Mikrobiologiako Gradua Agronomia Ingeniaritza eta Zientziako Gradua Nekazaritzako Ingeniaritzako Gradua Elikagaien Ingeniaritzako Gradua Nekazaritza eta Ingurumeneko Ingeniaritzako Gradua Nekazaritzako Ingeniaritzako Gradua Nekazaritzako Elikagaien Ingeniaritzako Gradua
7	Patataren hozi-plasma klima-aldaketak eragindako estresen aurrean ebaluatzea eta markatzaile molekularrak aplikatzea	Biologiako Gradua Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua Bioteknologiako Gradua Ingurumen Zientzietako Gradua Agronomia Ingeniaritza eta Zientziako Gradua Nekazaritzako Ingeniaritzako Gradua Elikagaien Ingeniaritzako Gradua Nekazaritza eta Ingurumeneko Ingeniaritzako Gradua Nekazaritzako Ingeniaritzako Gradua Nekazaritzako Elikagaien Ingeniaritzako Gradua Nekazaritzako Elikagaien eta Landa Ingurunearen Ingeniaritzako Gradua

2016ko irailaren 21a, asteazkena

Zk.	Proiektuaren izena	Eskatzen diren tituluak
8	Gernikako piperraren eta Ibarako piperminaren bertako barietateetan Tobamobirusaren aurreko erresistentzia sartzea	<p>Biologiako Gradua  Ingurumen Zientzietako Gradua  Agronomia Ingeniaritza eta Zientziako Gradua  Nekazaritzako Ingeniaritzako Gradua  Elikagaien Ingeniaritzako Gradua  Nekazaritza eta Ingurumeneko Ingeniaritzako Gradua  Nekazaritzako Ingeniaritzako Gradua  Nekazaritzako Elikagaien Ingeniaritzako Gradua  Nekazaritzako Elikagaien eta Landa Ingurunearen Ingeniaritzako Gradua  Basogintzako Ingeniaritzako Gradua  Basogintza eta Natur Inguruneako Ingeniaritzako Gradua</p>
9	BIG DATA analisia Europako haragitarako oilaskoaren erabilera, osasuna eta ongizatea optimizatzeko (Era-Net Europako Proiektua)	<p>Informatikaren Ingeniaritzako Gradua  Agronomia Ingeniaritza eta Zientziako Gradua  Nekazaritzako Ingeniaritzako Gradua  Elikagaien Ingeniaritzako Gradua  Nekazaritza eta Ingurumeneko Ingeniaritzako Gradua  Nekazaritzako Ingeniaritzako Gradua  Nekazaritzako Elikagaien Ingeniaritzako Gradua  Matematikako Gradua  Estatistikako Gradua  Biologiako Gradua  Albaitaritzako Gradua  Ingurumen Zientzietako Gradua</p>
10	Lurzoruaren osasuna indartzeko estrategia iraunkorrak: iraunkortasun funtzionalerako jarraibideak eta adierazleak.	<p>Biologiako gradua  Biokimika eta Biologia Molekularreko Gradua  Bioteknologiako Gradua  Ingurumen Zientzietako Gradua  Agronomia Ingeniaritza eta Zientziako Gradua  Nekazaritzako Elikagaien eta Landa Ingurunearen Ingeniaritzako Gradua  Basogintzako Ingeniaritzako Gradua  Basogintza eta Natur Inguruneako Ingeniaritzako Gradua  Nekazaritzako Ingeniaritzako Gradua  Elikagaien Ingeniaritzako Gradua  Nekazaritza eta Ingurumeneko Ingeniaritzako Gradua</p>



2016ko irailaren 21a, asteazkena

## II. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SEKTOREKO ARLO ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOAN ETA ENPRESA ARLOAN, IKERTZAILEAK ETA TEKNOLOGOAK PRESTATZEKO LAGUNTZA ESKAERA 2017KO EKITALDIRAKO

<http://www.nasdap.ejgv.euskadi.eus>

## 1.– Norberaren datuak:

Deiturak: .....

Izena: .....

NAN: ..... Sexua: .....

Helbidea: .....

Hiria: ..... Posta-kodea: .....

Lurralde Historikoa: .....

Telefonoa: ..... Helbide elektronikoa: .....

## 2.– Datu akademikoak:

Tituluak: .....

Titulua zein ikastetxetan lortu den: .....

Titulua lortu zen data: .....

## 3.– Eskatu den beka-programa.

Interesdunek laguntza eskatu ahal izango dute edozein programatan, eta I. eranskinean programa bakoitzerako jasotako 3 gai aukeratu ahal izango dituzte. Gaien hautaketa diru-laguntzak esleitzerakoan jarraitutako lehentasun-ordenaren arabera egin beharko da.

Ordena	Proiektuaren izenburua
1.	
2.	
3.	

## 4.– Eskatzaile guztiek aurkeztu beharreko AGIRI OROKORRAK:

a) Ikasketen ziurtagiri osoa (jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua). Ziurtagiri horretan egiaztatu beharko dira eskatzailearen kalifikazio guztiak eta kalifikazio horiek lortu zitueneko datak.

b) Curriculum, eta bertan aipatzen diren merezimenduak egiaztatzeko egiaztagiriak edo/eta ziurtagiriak. Agiri hauen guztien bina kopia aurkeztuko dira.

c) Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.

d) Errolda-ziurtagiria, 185/2007 Dekretuko seigarren puntuko 1b) paragrafoa betetzen dela egiaztatzeko.

Datuak Egiaztatzeko Sistemaren bidez nortasunaren eta bizilekuaren gaineko datuak zuzenak direla egiaztatzeko baimena ematen du eskatzaileak, eskaera honen ondoretarako soilik.

2016ko irailaren 21a, asteazkena

Horretarako baimenik eman ezean, markatu ..... eremua eta aurkeztu agiri hauek:

- NANaren fotokopia konpultsatua.
- Errola-ziurtagiria.

e) Laguntza proiektuaren aukeraketa justifikatzen duen memoria laburra (gehienez ere 5 orrialde); kasu bakoitzean, gaiari buruzko ezagutza azalduko da eta aukeratutako gairako profil akademiko eta profesional egokia duela erakusten duten merezimendu pertsonalak argudiatuko dira. Agiri hauen guztien bina kopia aurkeztuko dira.

**ESKATZEN DU**, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailburuaren 2015eko urriaren 21eko Aginduaren bidez deitutako euskal nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako zientzia, teknologia eta enpresen inguruan ikertzaileak eta teknologoak trebatzeko beketako bat ematea.

**ADIERAZTEN DU** ez duela diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dituzten zehapen administratiborik edo penalik jasota izan, ezta horretarako legezko inolako debekurik izan ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen seigarren azken xedapenean zehaztutakoarekin bat etorriz.

....., 2016ko .....ren .....a.

Sinadura

---

Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bidez eskatzen zaizkizun datuak "Teknologo eta ikertzaileentzako prestakuntza-bekak" izeneko fitxategi automatizatuan sartuko direla tratatzeko. Fitxategi hori Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko otsailaren 25eko Aginduan ("Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak kudeatutako izaera pertsonaleko datuen fitxategi automatizatuak eta ez automatizatuak arautzen dituena") arautu da, 68 zenbakiarekin. Nahi baduzu, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, legean ezartzen den bezala. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Kalitatea eta Elikagaien Industriako Zuzendaritzari idazkia bidali beharko diozu, bera baita zure datuk tratatzeko arduraduna. Hauxe du helbidea: Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz.